

Herritarrek

2018ko uztaila

INFORMATZEN

Udalgintza informazioa 2015-2019

12. alea



www.berastegi.eus

HIRIGINTZA

1. Frontoia eraberritzeko lanak: Esperotako denboran eta moduan doaz frontoia eraberritzeko lanak. Laster bukatuko dituzte.

2. Ariztun auzoa argiztatzeko plana: Eguzki-energiaren bidez funtzionatzen duten kale-argiak jartzearen alde egin dugu eta Ekiona enpresaren proposamenari eman diogu baiezkua. 11 kale-argi izango dira guztira, errepide nagusitik auzora eta auzoan bertan banatuta. Arrekontua 39.787 eurotan geratu zaigu



eta jakin halako inbertsioek laguntzak lortzeko aukera handiak izaten dituztela, bai Eusko Jaurlaritzaren Leader laguntzetan, bai Energiaren Euskal Erakundearen laguntzetan. Ingurumenaren aldeko ereduaren alde egitea dela bidea sinistuta hartu dugu erabakia. Enpresa berak instalatu zituen Izotzaldeko eguzki-energia bidezko kale-argiak ere eta haien errendimendua hobetzeko neurriak hartzeko ere agindu diogu.

3. Mediku-etxe zaharra: Parte-hartze prozesuaren barruan apirilaren 21 eta 27an egin genituen saioetan, aukera izan zuten herritarrek, herrian ditugun gabeziak kontuan, eraikin honi begirako proposamenak egiteko. Herritarren ekarpenetatik bi proiektu-aukera prestatu dizkigu herriko arkitektoak, mediku-etxe zaharrean bideragarri izan litezkeenak.

Alde batetik, udal aterpetxe bat jartzeko proposamena, beheko solairuan jangela, komunak, biltegia eta apartamentu egokitu bat izango lituzkeena, eta goiko solairuan 3 logela (literetan 28 lagunentzako lekuarekin), komunak eta dutxak. Eta, bestetik, gimnasioa eta tailer-gelak izango lituzkeen konplexua jartzekoa; beheko solairuan sukalde-tailerra, masaje-gela eta tailerretarako eremua izango lituzke, eta goiko solairuan bi gimnasio eta komunak.

Guri proiektu interesgarriak iruditu zaizkigu biak ere. Udazken aldera, bi proposamenen aurkezpena egingo dugu herritarren aurrean eta bataren edo bestearen alde bozka emateko aukera jarriko dugu. Dudarik gabe, 2019ari begirako proiektu estrategikoa izango da mediku-etxe zaharrarena.



UDAL FUNTZIONAMENDUA

4. Hirugarren herri-langilea: Azken urteotan egin bezala, lanaldi osoan hilabete eta erdirako hirugarren herri-langile bat kontratatzeko deialdia jarri dugu martxan. 6 baldintza eskatu zaizkie hautagaiei: 18 urte beteak izatea, langabezian egotea, herrian erroldatuta egotea, euskaraz moldatzea, gida-baimena izatea eta desbrozatzeko jakitea. Hautagai bakarrak eman du izena eta bera, Ibon Garaiburu, izan da hautatua. Unai Mendikuteri ere lanaldi erdia osora luzatuko diogu epe berean.

5. Gaztelekua martxan: Laster izango dugu martxan Gazteleku berria, Urepele Elkartearen aldameneko lokalean. 12 eta 17 urte arteko herriko gazteei zuzendutako doako udal zerbitzua izango da, eta gazteek beren eskakizunak eta ekimenak sortu eta garatzeko lekua izatea nahi genuke.



Bertako ekipamendua gazteen esku utziko du Udalak (mahai-jokoak, joko handiak (ping-ponga, futbolina...), aldizkariak, altzariak...) eta hura zaintzeko eta txukun mantentzeko ardura ere gazteena izango da. Batzorde bat osatuko da gazteen artean eta Udalarekin elkarlanean arituko da. Arau-hauste edo arazoren bat gertatuz gero, Batzordeak hartuko du esku lehendabizi; eta, ondoren, beharrezko bada, Udalak. Zerbitzua martxa onean doa-luzatatzeko eta aldizka gainbegiratzeko egongo da Udala.

Sarbide librea izango du erabiltzaileentzat eta ostiral, larunbat, igande eta jaiegun arratsaldeetan irekiko da. Gazteen oporraldietan ordutegi malguagoa ere izan lezake. Bazkide-txartela lortu ahal izateko, erabiltzaile bakoitzak eta haren gurasoek Udalak prestatutako zinpeko aitortpena sinatu dute, Gaztelekuaren araudia bere baitan duena eta hartu beharrezko konpromisoen berri ematen duena. Bazkide-txartelak banatuta dauzkagu dagoeneko eta lokala ere prest. Laster irekiko ditu ateak.

6. Udal foroa: Apirilaren 20an bildu ziren J. A. Muñagorri eskolako ikasleak alkatearekin Agenda 21 proiektuaren barruan zer lan egin duten aurkezteko eta eskaera zehatzak egiteko Udalari. Aurten Klima Aldaketaren gaia jorratu dute eta aurre egiteko hainbat konpromiso hartu ere bai. Udalari egin dizkioten eskaerak hauexek izan dira: 1) frontoian paper-ontzi gehiago eta EZ ZIKINDU dioen kartel bat jartzea, 2) espaloi gehiago eta bidegorriak egitea eta 3) taldean jolasteko baliabide gehiago jartzea herrian.



7. AIORA aplikazioa: Mobiletik nahiz ordenagailutik sartzeko aukera ematen duten aplikazioa da AIORA eta Udalaren, herriko elkarten eta herritarren arteko komunikazio-sarea indartzeko eta parte-hartzea sustatzeko tresna baliagarria izan litekeela sinetsita gaude. Apirilaren 24an bildu ginen aplikazioaren sortzaileekin eta erabilgarritasun handia ikusi diogu. Klik gutxi batzuen bidez, 1) herri mailako interes orokorreko informazioa eduki genezake bertan eguneratuta; 2) Udalak nahiz elkarteek

deialdiak egiteko eta agenda zintzilikatzeko aukera dute; 3) espazio-publikoen erreserbak egiteko aukera ere ematen du (aparkaleku azpia, erabilera anitzeko gela...); eta, 4) inkestak eta foroak aurrera eramatekoa ere bai.



Administrari eta erabiltzaile-perfil ezberdinak onartzen ditu. Udalaz gain, herriko elkarteak ere izan litezke administrari eta beraiei dagokien informazioa gehitzeko aukera izan lezakete; erabiltzaileak ere bi motatakoak izan daitezke: 1) bisitaria bada, informazioa jasotzeko eta inkesta, foro eta halakoetan parte hartzeko aukera izango du; eta 2) eragilea bada, horretaz gain, elkarteren batean ardurak dituelako, dagozkion ataletan informazioa gehitzeko eta moldatzeko aukera izango du.

Udala izango da aplikazioaren kudeaketa-arduradun nagusia eta berak erabakiko du erabiltzaileei zer eskumen eman. Aplikazioaren instalazioak 4.000 euro inguruko kostua du eta urteko mantenuak 400 eurokoa. Eskara egin genuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFaren) Herritarren partaidetza sustatzeko laguntzen deialdian eta %80ko laguntza onartu digute. Aurrera egingo dugu, beraz.

8. Hitzarmen-berritzea Ategin: Taberna eta jatetxe-zerbitzua ireki zela bi urte bete berritan, orduan sinatutgako hitzarmena berritzeko garaia iritsi zaigu; beste bi urterako berritu dugu.



INGURUMENA eta ENERGIA

9. Artalekuko eremua: Maiatzaren 29an bildu ziren alkatea eta herriko arkitektoa GFAko Ingurumen Saileko zuzendariarekin eta teknikariarekin, Artalekuko eremuari industriagune izendapena emateko aurrerapausoak emateko asmoz. Hasieratik ezezkoan jarri ziren gogor gure udal ordezkariak aurkeztutako proiektuaren aurrean; hauexek izan ziren eskaerari ezezkoarekin erantzuteko erabili zituzten argudioak: 1) oinarritzko azpiegiturarik (ura, argia, gasa...) ez duela eremuak, 2) lurra kutsatuta egonik, hura deskontaminatzeak kostu handia izango lukeela, 3) guk eremuari eman nahi diogun bideragarritasun ekonomikoak oso landua eta justifikatua izan behar duela eta ez dela horrela, eta 4) herrigunetik oso aparte geratzen dela eremua eta gertuago egon behar dutela industriaguneek.

Egitea geneukanari buruz galdetuta argiago ikusi ahal izan genuen, hala ere, zer pauso eman: ezer baino lehen, Artalekuko lurraren azterketa egitea, zer egoeratan dagoen zehatz jakiteko, eta kutsatutako eremua deskontaminatzen eta berrerabilgarri egiten hasteko. EAEn 8 bat enpresa daude halako garbiketa-lanak egiteko homologazioa dutenak eta komeni da lan horiek halako enpresaren bati ematea, gero diru-laguntzen deialdian aukera gehiago izateko.

Gure ingurumen-teknikariak jakinarazi digunez, EJK zabaldu berri du Garapen jasangarria sustatzeko diru-laguntzen deialdia; tartean, lurzoru kutsatuak birgaitzeko proiektuak hartzen ditu bere baitan. Esana diogu eskaera-txostena prestatzen hasteko. Irailaren 14ra arteko epea daukagu aurkezteko.

Gure udal teknikariak beste aukeratzat ikusi dutena eremua kutsatu zutenei (A-15 autobidea egin zeneko foru-agintariei) ardurak eskatzearena da eta lehengoratzeko laguntza ekonomikoa eskatzea.

10. Ur zikinen saneamendu-sistema: Ekainaren 1ean egin zen Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren azken batzarra, hainbat herritako udal ordezkariak bertan zirela. URA Agentziak eta Ur Kontsortzioak 2018-2021 urteetan zehar aurrera eraman nahi dituzten proiektuen artean agertu zuten, beste behin, Berastegitik Ibarrainoko erreka eta ur-zikinen saneamenduaren proiektua. Hartarako, egin zuten aurkezpenaren arabera, 4,1 milioi euro jarriko lituzke URA Agentziak eta 1,375 milioi euro GFAk.

Hauxe izan da berritasuna; lehen ere kontenplatu izan dute gure herriko saneamendu-sistema lau urteko plangintzetan, baina Aldundiak ez du dirua jartzeko aurrerapausorik eman izan. Aldundiaren diru-ekarpena ez da ofiziala oraindik. Felix Asensio GF Ako Obra Hidraulikoetako zuzendariak adierazi



uraren euskal agentzia
agencia vasca del agua

zigunez, hitzarmena ekaina amaitu baino lehen sinatzeko asmoa zuten. Ekaina pasa da, baina ez dago berririk. Zain egon beharko.

11. Ur Kontsortzioaren lanak epe motzean: 2018an zehar 120.000 euro inguruko inbertsioa egingo du Ur Kontsortzioak Berastegin: alde batetik, Kale Nagusi guztiko eta Urdinarrainetik Elizalderako hoditeria aldatuko du; fibrozementozkoa kendu eta fundiziozkoa jarri (40.000 euro inguru). Eta, bestetik, herria hornitzeko dauden bi hodi-sare nagusien (Elduainaldekoaren eta Izotzaldekoaren) erdian, hoditeria berria instalatuko du (80.000 euro). Hartara, bi eraztunen bidez hornituko du herria. Jabe pribatuen lursailetan lanak egin ahal izateko, laster jarriko gara haiekin harremanetan.

12. Argindar-zerbitzua Goiener-ekin: Dagoeneko martxan ditugu gure argindar-behar guztiak Goiener energia berriztagarrien aldeko kooperatibarekin. Orain, emanda dauzkagun 'alta' guztien balorazio-txosten bat egingo digutela adierazi digute, kontsumoa optimoago egiteko zinetan egingo lituzketen potentzia-aldaketak eta zenbat aurreztuko genukeen aurreratuz.



13. Goi tentsioko linearen aurkako plataforma: Bada aspaldian proiektu bat goi tentsioko linea bat Gipuzkoa eta Nafarroa alderik alde zeharkatuz ezartzea helburu duena. 60 metro inguruko antenak jartzea dago aurreikusita ibilbide osoan, argindar-biltegi nagusia Ezkio-Itsason egongo litzateke eta Goierrri eta Sakana aldetik joango litzateke sarea. 2013an Eguzki elkarte ekologista proiektuaren aurka azaldu zen gogor eta atzeratu zen nolabait bere ezarpena. Orain, ordea, bilera baterako deia luzatu digute zenbait udali, goi tentsioko linea horren trazadura erabakitzeke (haren %20 Gipuzkoatik pasatuko litzateke eta gainerako %80a Nafarroatik).

Berastegiko eremua ez du harrapatzen aipatutako trazadurak, baina eragin-eremu bezala markatutako diametroaren barruan gaudela dirudi. Estatuaren Energia-Planean dator proiektua; beraz, ez dirudi atzera botatzerik izango denik. AHT hornitzeko izango da linea, itxura guztien arabera. Guk ez dugu makroproiektu hau babesten, haren aurkako plataformarekin egiten dugu bat.

14. Geotech-en eskaintza: Gasteizko enpresa honek mendi-pistak eta bidezidorrak (PR, GR eta LHak) katalogatzen eta seinalizatzen egiten du lan. Ibilbide markatuen gidak ere prestatzen ditu, paperean nahiz formatu digitalean. Geotech-ek Udalari egin dion proposamenaren arabera, 30 kilometro inguruko ibilbide-sarea katalogatzea eta seinalizatzea 23.570 euro inguru kostatuko litzateke; bidezidor-sarearen diseinua, inplantazioa eta seinalazioa 17.970 euro eta udal-mapa digitalean eguneratzea eta mapa turistiko baten garapena 8.600 euro. Badira diru-laguntzak inbertsio hauetarako. Aurten ez bada, datorren urteari begira proposamenari heltzeko asmotan gaude.

NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA eta BASOGINTZA

15. Ipuliñoko larre komunalen proiektua: Xabier Saizar ari da garbiketa-lanekin. Gainerako hitzarmen-sinatze eta tramiteak bukatuta eta aurreratuta dauzkagu.

16. Baso ateratzeko lanak Ulin: Gaixorik dagoen pinudi bat ateratzeko beharrezko baimenak eskatuta ditugu GFAn eta orain Baso Elkartek egin behar du pinudiaren tasazioa, ateratzeko lanekin hasteko.

17. Mendi-pistak konpontzeko laguntzak: Iritsi da ebazpena. Gure eskaeretatik bik bakarrik lortu dute aldekoa: Ulizar eta Irumugarrieta artekoak eta Añako bi bideek. Guk 49.210 euroko aurrekontua aurkeztu eta 32.902 euroko laguntza agindu digu GFAK. Joanluzenea eta Iturbe, Lizarraga eta Loretoki eta Gorritxiki eta Bordatxuri arteko bideen eskaerak geratu dira onarpenik gabe. Saiatuko gara diruz lagunduak izan ez diren bideak ere herri-langileekin txukuntzen.



18. Zuzeneko salmenta: Maiatzaren 11n egin zen bilera martxan dagoen zerbitzua indarberritzeko eta bultzada emateko asmoz. 8 lagun bildu ginen eta, luze eta zabal hitz egin ondoren, erabaki hauexek hartu genituen: 1) herriko produktuak saltzeko whatsapp-taldea indartzea (ekoizleek taldean eskainiko lukete eskaintzeko daukatena eta inork interesa izanez gero, zuzenean jarriko litzateke harremanetan ekoizlearekin); 2) garaiko produktuen inguruan bi

ikastaro egitea (sukaldatzeko modu ezberdinak ezagutzeko eta kontserba nola bihurtu ikasteko); 3) Nafarroako olioaren Berastegin erosteko aukera eskaintzea; eta, bukatzeko, 4) Orduñako proiektua eta ereduaren zertan den ezagutzeko; hura martxan jarri zutenak gonbidatuko genituzke herrira eta, beharrezko ikusiz gero, irteera bat ere antola genezake hemendik hara.

19. Ardi-ileen bilketa: Aurten ere eskainiko du zerbitzua Tolomendik. Artalekun, markatuta jarriko den eremuan, utzi beharko dute sortzaileek ardi-ilea. Jakinaraziko zaizue noiz egingo den bilketa. Bildutako artilea Nafarroako Artaxonara eramango dute konposta egiteko.

20. Silo-plastikoaren bilketa: Jendeak udal bandoan zehaztutako eguna errespetatu ez duenez eta plastikoak eta sokak bereizi gabe utzi dituzenez, bilketa bertan behera uztea erabaki du Tolomendik. Horren ordez, sortzaile bakoitzari bere ontzia eman eta banan-banango zerbitzua eskainiko dio.

21. Artalekuko zuloa itxita: Gipuzkoako Foru Adundiak Artalekun animalia hilak botatzeko Udalak herriko baserritarren mesedetan irekia zeukan zuloaren berri izan ondoren eta arau-haustearen jakinarazpena iritsi zaigunez, zuloa behin betiko ixtea erabaki dugu. Hemendik aurrera, animalia hilak jasotzeko zerbitzua erabiltzeko Aldundira deitu beharko dute herritarrek, 943 11 23 48 telefonora.

GIZARTE ZERBITZUAK

22. Berdinbidean programa: Aurten 4.000 euro emango dizkigu GFAK Berdinbidean programarekin lotutako ekintzak antolatzeko. Gu, gure aldetik, egoitza nagusia Azpeitian duen HARREMAN elkartearekin jarri gara kontaktuan zer proposamen dituzten ezagutzeko eta gure interesekoak eta Berdinbidean programarekin bat etor litezkeenak zein izan litezkeen ikusteko.



Hauexek dira guk egoki ikusi, Aldundiaren onespena jaso eta, beraz, 2018an zehar aurrera eramango ditugun ekintzak: 1) Gazteleku berriko gazteekin, alde batetik, saio bat egitea (ekainaren 22an egin zen), elkarbizitza egoki baterako aholkuak beraiekin konpartitzeko; eta, bestetik, hemendik aurrera hilean behin, larunbatetan, haien intereseko gaiak lantzeko bi orduko 10 saio antolatzea Gaztelekuan bertan; 2) Guraso-eskola baterako proposamena (2-12 urte arteko gurasoentzat, batez ere), irailetik aurrera ikasturtean zehar egiteko, hilean behin edo bi hilabetez behin gurasoen intereseko gaiak lantzeko (9 saio, ordu eta erdikoak) (Beasti Guraso Elkarteak hasia da bukatu berri dugun ikasturtean saio batzuk antolatzen; guk azaldu diegu zein den gure planteamendua eta ados agertu dira); eta, bukatzeko, 3) 2017-2018 ikasturtean egin bezala, 2018-2019an ere eskolako 4., 5. eta 6. mailako ikasleekin sexualitatearen inguruko Bizikidetzak saioak aurrera eramatea (12 ordu guztira).

MOTZEAN

23. Udal Bizigune programa: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailetik iritsi zaigu programaren berri. Udalek beren jabetzan dituzten etxebizitzak bertako herritarrentzat erabilgarri jartzeko laguntza-plana da, labur esanda. Gure udalak, hain justu, ez du etxebizitzarik jabetzan eta programa



honek ez digu zuzenean eragiten. Baina kontuan hartuta herrian ugari direla hutsik dauden etxebizitzak, epe motzean erabiltzeko moduan egon litezkeenak, egoki ikusi dugu herritarrei Alokabide zerbitzuaren berri ematea eta etxeak alokairuan jartzeko programarekin bat egitea. Baserri eta auzoetako etxebizitzekin zail ikusten dugu, baina herriguneko etxebizitza ugari beteko lituzkete baldintzak. Informatuko zaituztegu.

24. Oporrak bakean Gobernu Kanpoko Erakundea: Urteak daramatza haur saharar udan pasatzera Tolosaldera ekartzen. Herritarrei bakarrik ez, udaloi ere egiten digute eskaera laguntzeko. Udalek eman beharreko laguntzaren estimazioa herrira datorren haur bakoitzeko 2.000 euro izaten da: hegaldirako 650 euro eta haientzat antolatzen dituzten ekintzetarako eta begiraleen kontrataziorako beste 1.400 euro. Proiektuan parte hartzen duten udalek Tolosako Udalarekin sinatzen dute esandako guztia jasotzen duen hitzarmena. Eta, hain zuzen, herriko bikote batek proiektuarekin bat egin eta oporretan haur saharar bat etxean hartzea erabaki duela jakin ondoren, haur horren gastua (2.000 euro), gure gain hartzea erabaki dugu.



25. Udalaren identitate bisuala edo logotipoa berritzeko proposamena: Argazkigintzako estudio baten eskutik iritsi zaigu proposamena. Berastegiko Udalak gaur egun darabilen identitate bisuala edo logotipoa garai batean eskuz egindako irudian dago oinarritua eta gaurko euskarrietan irudikatzerakoan, pixelizatua eta puskatua azaltzen da, marrazkia bere garaian handian ikusteko marraztu baitzen, ez txikian. Hargatik, armarria gaur egungo bertsio eta moldeen eran marraztu eta bektorizatzea bururatu zitzairen estudio-kideei eta halaxe ekarri digute proposamena udaletxera.




Irudi berriaz gain, gida-liburu bat ere jarriko dute gure eskura, irudiaren deskribapen zehatzarekin eta euskarri ezberdinetan (inprimaki, gutun-azal, karpeta, zigilu eta mapetan, euskarri digitaletan...) erabiltzeko argibideekin. Inbertsio honek 780 euroko aurrekontua du eta guk aurrera egitea erabaki dugu.

26. Berrikuntza-lanak eskolako jangelan: EJko Hezkuntza Sailak zenbait hobekuntza-lan egitea aurreikusi du eskolako jangelan eta aste hauetan zehar egingo dituzte lan horiek. Jangela eta sukaldearen arteko bi paretak bota, sukaldea pixka bat handitu eta paretak berregitea da asmoa eta sukaldeko instalazioak eta akaberak berritzea. Ikasturte berria hasterako prest.

27. Kaleak garbitzeko makina: Plaza eta herriko kaleak garbitzeko makinaria erosteko asmotan gabiltza, 'hidrolimpiadora' izenekoa. Herriko kotxearen atzeko kabinan kokatuko litzateke makina, bere ur-deposituarekin, eta eroso eraman ahal izango genuke behar den lekura. Zirrikituetakoz zikin-keria garbitzeko erratza edo aire-ufadak baino sistema eraginkorragoa ikusi dugu ura presioa-ekin erabiltzea. 10.000 euro inguruko kostua du.

28. Berastegiko "metro" edo baserrien mapa: Miguel Elozegi eta Pablo Feo leitzarren eskutik iritsi zaigu proposamena. Hiri handietako metro-linea eta geltokien mapa koloretsuen antza duen mapa bakarrean herrietako auzoak eta auzoetako etxe- eta baserri-izenak biltzen dabiltza azken aldian. Leitza, Areso eta Zubietakoak egin zituzten eta Berastegikoa ere egin eta ekarria digute. Doako eskaintza izan da eta guk erabilgarri ikusi dugu. Kalean zehar jarriko ditugu zenbait ale eta jakin aurtengo *Aidanen* aldizkarian ere argitaratuko dela.



29. Musika ekipo berria: Zaharra arazoak ematen hasia zegoen eta berria erosi dugu Tolosako Zumeta dendan 300 euro eskasen truke. San Joan bezperako festan estreinatu genuen.

30. Berastegiko Udala B@kQ txartelaren tramitatzaile: B@kQ txartela pertsona fisikoek zuzendutako identifikazio elektronikoa bidezko bitarteko berri bat da, autentifikatzeko eta sinatzeko prestatua. Administrazioekin telematikoki harremanetan jartzeko aukera eskaintzen du eta oso erabilerraza da. Udal bulegoetan bada hura lortzeko aukerarik aurrerantzean.



KULTURA eta KIROLA

31. Maiatzak 15, San Isidro eguna: Urteroko legean ospatu dugu aurten ere baserritarren eta jubilatuen eguna. Txistulari, dantzari eta bertsolari gaztetxoek lagunduta, santua lagun eliz bidea egin eta meza ospatu zen 13,00ean. Ondoren bazkaria egin genuen udaletxean eta 60 lagun inguru bildu ginen. Bazkal ondoan, erromeria eta dantzarako aukera ere izan zen.



32. Bote luzeko ikastaroa: Uztailean zehar Larraulgo Murgilazpi kirol-elkartearen eskutik bote luzeko ikastaroa egingo da plazan. Uztailaren 9, 11, 16 eta 18an, astelehen eta asteazkenetan izango da, 16 urtera artekoentzat (16,30-18,00) eta 16 urtetik gorakoentzat (18,00-19,30). Uztailaren 19an, berriz, taldeen arteko partidak jokatu dira. 600 euroko kostua izan du ikastaroak (irakaslea, garraioa eta materiala barne). Guk doan eskaintzea erabaki dugu.

33. Sega-txapelketa Berastegin: Almintza sega-elkarteak antolatuta, sega-txapelketa egin zen herrian ekainaren 30ean. Euskadiko Ligaren barruko proba izan zen eta hiru kategoriatan jokatu zen: gizonetakoena, emakumetakoena eta umeena (12 urtera artekoena). Europako erara ebaki behar izan zuten belarra segalariek, txukun eta azkar; eta probak Mundu Txapelketara sailkatzeko balio izan ziren. Izotzalden, Elgorriaga baserriko lursail batean egin zen; jende ugari erakarri zuen ikuskizunak.

34. Asteasuko gazteak bisitan: Uztailaren 10 eta 11n gurean izan genituen gaua pasatzen. Oinez Asteasutik Leitزارako bidea egiteko asmoz, bi eguneko geldialdia egin zuten Berastegin. Eskolako gimnasioa utzi genien lotarako.

34. Salontzoak ate joka: Abuztuaren 8an asteazkenarekin hasi eta 12 igandera arte luzatuko dira. Denetik izango dugu: herri-afaria, herritarren arteko herri-kirolak, batukada-taldea, umeentzako jolas, puzgarri eta apar-festa, pilotariak, aizkolari eta harri-jasotzaileak, bertsolariak, dantzariak, zahagi-ardoa, sagardo-dastaketa, musika eta parrandarako plana eta Dantzerki ere bai. Aurten festa-hasierako pregoia



Jon Azpiroz mendi-korrikalariaren eskutik izango dugu. Eguraldiak lagunduko digun ezin jakin azken momentura arte; hala ere, festa-giroa eta umore ona ez dira faltako.